



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2018KO UZTAILAREN 16AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko uztailaren 16an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, M^a Mar Ansorena, Aitor Arangoa eta Bakartxo Ripalda.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Apeztegi berriko 1. pisua egokitzeko, obraren esleipena.

Aurreko batzarrean onartu zen prozedurari hasiera ematea eta baldintza plegua. Bailaran xedea duten eraikuntza enpresei bidali zaie gonbidapena eta baita ere ondoko bailarako batzuei. 9 enpresei bidali zaie gonbidapena eta bi proposamen aurkeztu dira. 2018/2 kontratu publikoen foru legearen arabera, prozedura erraztuan esleitu ahal dira 60.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten zerbitzu eta hornidura kontratuetan eta 200.000 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra kontratuak. Kontratazio organoak, ahal dela, eskaintzak eskatuko dizkie gutxienez kontratua exekutatu dezakeen 5 enpresa edo profesionali.

Gonbidapenak idatziz bidali ziren, adjudikaziorako oinarri izanen diren irizpideak eta eskaintzak aurkezteko epea arautuko duen plegua erantsita. Kontratazio organoak, hotsa udal batzarrak, 2018/2 foru legearen 50. artikulua arabera, eskatutako eskaintzetatik bi gutxienez lortuko ez balitu, eskaintza gehigarri bat lortzen saiatu beharko da, Halakorik lortuko ez balu edo gonbidapen berri bat edo gehiago egitea ezinezkoa balitzaio, arrazoiak justifikatu beharko lituzke.

Kontratazio mahaiak aurkeztutako 2 proposamenak aztertu eta ondoko emaitza ezagutarazten du:

Empresa	Proposamen ekonomikoa	Berme epearen luzapena	Guztira
Zulaga	90	2	92
Felix Construcciones	86,87	8	94,87

Bildutakoek ikusita berme epearen luzapenaren proposamena ez dagoela garbi zenbat urtekoa eskaintzen duten, erabaki dute eskatzea bi enpresei idatziz adieraztea zenbateko berme epea eskaintzen dute osotara.

2.- Udal Planaren Aldaketa Industriagunea sortzeko. Hasierako onespena.

Alkateak azaltzen du udal planaren aldaketa honekin, lurraren erabilera aldatzen dela, gune horretan finkatuak dauden bi erabilerak (kontsolidatu gabeko lur urbanoa eta urbanizatu gabeko nekazaritza produktibitate ertainekoa), industria erabileran bihurtuz. Udal planaren aldaketa hau egiturazkoa izanik Nafar Gobernuak onartu behar du behin betikoz. Ondoren beste udal planaren aldaketa bat tramitatu behar da, eraikuntzak eta azpiegiturak marraztuz eta bideragarritasuna aztertuz.

Bildutakoek, aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea aktibitate ekonomikoen gunea sortzeko udal planaren egiturazko aldaketa, eta Lurralde Antolamendu 2002/35 Foru Legearen 70 eta 71. artikuluen arabera hasiera onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta jendeaurreko 30 eguneko epean egonen da.**
- **Erabaki hau eta espediente osoa Nafar Gobernura bidaltzea baiezkotxostena eskatuz.**

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.